

ESKOLETAKO JANTEGIAREN IBILERA BALDINTZAK

Araudi hau, Herriko Kontseiluak 2021/07/01 ean baieztatua Herriko jantegiaren ibilera finkatzen du. Lotua den barneko araudiaz osatua da.

Eskoletako jantegia hautuzku zerbitzu bat da haurren fagoretan egina. Bere lehenbiziko xedea da segurtatzea onhartu diren haurrek bazkari orekatuak ukan ditzaten, indarrean diren arauak errespetatuz.

Eskolako jantegiaren kudeaketa Herriko Etxearen gaitasuna da. Bere antolakuntza eskolen antolakuntzatik arras bereizia da. Izen emateak baitezpada egiten dira Herriko Etxearen idazkaritzan

➤ **HARTZAILEAK :**

Eskoletako jantegia herriko bi eskoletan diren haurreri idekia da, bai eta eskola horietan lan egiten duten heldueri ere.

Bazkari guziak jantegiko gelan hartuak dira, zerbitzuaren idekitze tenoreak errespetatuz 12 :00tik -13 :20 arte.

➤ **ONARPEN BALDINTZA OROKORRAK :**

Bi izen emate modu baizik dira :

○ **BEHIN BEHINEKO IZEN EMATEA :**

Izen emate hori eskola denbora guziko egina da, asteko presentzia egunak aitzinetik erranez.

Zure haurraren sartzea behin behinekoa izanen da, izen emate txostena osatu ondoan, huni dokumentu hauek osatu eta :

- Izen emate fitxa, behar den bezala osatua, egite eguna idatziz eta izenpetua ;
- Bankuko SEPA diru hartze baimena, Bankuko Nortasun Agiri batekin
- Barneko araudia zure haurrak eta zuek izenpetu eta

Berriztatze dozier bat onartua izateko, aitzineko urteko fakturak pagatuak izan behar dira.

○ **NOIZTENKAKO IZEN EMATEAK :**

Ohiz kanpoko izen emateak, erran nahi du :

-> erregular ez direnak eta beraz eskolako denborako planifikatu ezin direnak

-> **berantenaz aitzineko astearen ortzegunean izena emanaz Herriko Etxeko idazkaritzan**

-> fitxa elektronikoz bidaliz : accueil-mairiesouraide@orange.fr

➤ **PREZIOAK :**

URTEKO APAIRU HARPIDETZA	NOIZTENKAKO APAIRUAK	HELDUEN APAIRUAK
4.10 €	4.70 €	5.20 €

➤ PAGATZE MOLDEA :

Faktura ondoko hilabete hastapenean egina da eta 10 egun barne pagatzekoa da.

Urteko apairuentzat	➤ Diru kentze automatikoz zure banku kontuan hilabeteko 15ean. Honi dagokion RIBa emana izanen da eta diru-kentze automatikoa izenpetua. Faktura bat igorria izanen zaitzu, zure kontsumoaren kontrolatzeko eta zure konduaren hornidurari zain diezozun.
Noiztenkako apairuak	Hautuan : ➤ Diru kentze automatikoz zure banku kontuan hilabeteko 15ean. Honi dagokion RIBa emana izanen da eta diru-kentze automatikoa izenpetua. Faktura bat igorria izanen zaitzu, zure kontsumoaren kontrolatzeko eta zure konduaren hornidurari zain diezozun. ➤ Txekez « Dirizaintza publikoaren » izenean egina

➤ FAKTURATZEA :

Bazkariak fakturatuak dira epe bururatzean, hilabetea aitzin ikusiak diren bazkarien arabera, eritasun baten ondorioz hutsegiteak kendu eta.

Halere ordaindu beharko ez diren falta izateak izanen dira :

- Eritasun baten gatik hutsegiteak ordainduak izaten ahal dira, Herriko Etxeko idazkaritza abisatzekotan eta mediku baten agiria ematekotan : lehenbiziko bi huts egite egunak ez dira ordainduak izanen.
- Hilabete bat aitzin bederen aurreikusiak eta mail-ez Herriko Etxeari seinatuak izanen diren falta izateak.

Arrozoi pertsonalengatik ezeztatzeak ez dira sekulan onartuak izanen.

Kasu : fakturen pagatzeko epeak baitezpada errespetatu behar dira. Gure berriz orroitarazteko urratsak ondorioz gabe gelditzen baldin badira, haurraren jantegiko izen ematea gelditua izanen da zor diruketa pagatua izan arte.

➤ BAZKARIAK :

Menuak jantegiko hornitzaileak egiten ditu, GEMRCN-en gomedioak errespetatuz. Herriko eskoletan emanak dira. Osasun arazo edo alergiak dituzten haurrak, jantegian bazkaltzen ahal dute P.A.I bat ezartzeko baldintzarekin. Elikadura intolerantzia baten kasuan, P.A.I bat ez ukanez, gurasoek erne egon beharko dute menuen osaketaz. Ez da sekulan ordainezko janari edo bazkaririk proposatuko.

Kasu : Sekulan ez du Herriko langile batek erremediorik emaiten ahal haur bati, medikuaren ordenantza batekin ere.

➤ BIZI ARAUDIAK HAUR ETA HELDUENTZAT :

Bazkariaren denboran, haurrak jantegiko langileen zaintzapean eta gain dira, hauek borondate oneko diziplina atxikitzen dute.

Bazkari denbora , nola aldi abantailatsu bat den haurrentzat. Denboraldi hunek , lasaia eta baketsua izan behar du. Hortakotz haurrek errespetatu behar dituzte, pertsonak, jakia, materiala eta orokorki ororen arteko bizi arauak : galdegiten dizugu huni lotua den jantegiaren barne araudia zure haurrari irakurtzea eta esplikatzea .

Izen emate orria izenpetuz geroz, finkatuak diren baldintzak onartzen dituzu.

**Eskertzen dizugu dokumentu hau artoski irakurtzeaz
eta atxikitzeaz barnean diren manuak errespetatzeko gisan.
Izen emate orria izenpetuz finkatuak diren baldintzak onartzen dituzue.**

ESKOLETAKO JANTEGIAREN BARNE ARAUDIA

Dokumentu hau nahi ala ez irakurri behar du haurrak bere burrasoekin

Apairuen banaketa baldintza hoberenetan iragaiteko,
Galdegiten dugu kasu egitea zure haurrak ondoko aginduak errespetatu ditzan :

JANTEGIRA JOAN AITZIN



- Komunitara noa
- Eskuak behar bezala garbitzen ditut
- Lerroan ezartzen naiz galdegina delarik eta ez naiz jostatzen
- Nere tokian jartzen naiz



APAIRU DENBORAN



- Mahainean ongi egoiten naiz : garbiki jaten dut eta mahain tresnekin
- Proposatuak diren jakien jatzatzea onartzen dut eta ez dut gatzatzen
- Ez dut gordinkeriarik erraiten, ez eta laidorik nere laguneri ez eta heldueri
- Jendetasunekin mintzo naiz **5 hitz magikoak erabiliz** :

Egun on –Plazer baduzu – Milesker –Barkatu–Ikus arte



- Materiala eta gela errespetatzen ditut
- Mahainetik isilik ateratzen naiz, baimena ukan ondoan eta lasterka egin gabe

JOSTALDI DENBORAN



- Bortizkeriarik gabe jostazen naiz, ez ditut lagunak jotzen
- Lagunak errespetatzen ditut
- Zaintzaileak entzuten ditut



Haurraren jokabidea garbitasun, segurtasun eta jendetasun arauekin ez bada egokitzen, jantegiko langileek ondoko zigorrak hartzen ahalko dituzte :

1. **Ahozko abisua** haurrari emana eta pedagogiko gatzigua ;
2. Huts larri edo usu eginaren kasuan, langileek herriko etxea abisatzen dute eta **hunek behar diren neurriak hartuko ditu eta burrasoeri jakinaraziko.**

Haur(aren-en) izenpetzea :

Burraso(aren-en) izenpetzea :

FICHE D'INSCRIPTION A LA CANTINE SCOLAIRE ESKOLETAKO JANTEGIAN IZEN EMATEKO ORRIA

Année 2025 / 2026 Urtea

A RETOURNER AVANT LE 27/06/2025 – 2025/06/27 AITZIN ITZULI

➤ RENSEIGNEMENTS ADMINISTRATIFS – ARGIBIDE ADMINISTRATIBOAK:

PARENT – BURASO 1 : (destinataire de la facture)

Nom – Deitura / Prénom- Izena :

Adresse – Helbidea:.....

Codepostal-PostaKode :.....Ville-Herria :

✉courriel-Helbide elektronikoa :.....@.....

☎portable-mugikorra :.....☎domicile-etxekoa :.....☎travail-lanekoa :

PARENT – BURASO 2 :

Nom – Deitura / Prénom- Izena :

Adresse – Helbidea:.....

Codepostal-PostaKode :.....Ville-Herria :

✉courriel-Helbide elektronikoa :.....@.....

☎portable-mugikorra :.....☎domicile-etxekoa :.....☎travail-lanekoa :

➤ INSCRIPTION(S)/ IZEN EMATEA(K) :

DETAILS / XEHATSUNAK	ENFANT/ HAUR 1	ENFANT / HAUR 2	ENFANT / HAUR 3
NOM / PRENOM / DEITURA/IZENA :			
DATE DE NAISSANCE / SORTEGUNA :			
ETABLISSEMENT / ESKOLA :	☐ École publique/Eskola Publikoa ☐ École Sacré cœur/ Bihotz Sakratuko Eskola	☐ École publique /Eskola Publikoa ☐ École Sacré cœur /Bihotz Sakratuko Eskola	☐ École publique/ Eskola Publikoa ☐ École Sacré cœur / Bihotz Sakratuko Eskola
CLASSE / KLASEA :			
JOUR(S) DE PRESENCE REPAS HEBDOMADAIRE / PRESENTZIA EGUNAK	☐ lundi /Astelehena ☐ mardi / Asteartea ☐ jeudi / Ortzeguna ☐ vendredi/Ortizilarea	☐ lundi /Astelehena ☐ mardi / Asteartea ☐ jeudi / Ortzeguna ☐ vendredi/Ortizilarea	☐ lundi Astelehena ☐ mardi / Asteartea ☐ jeudi / Ortzeguna ☐ vendredi/Ortizilarea
P.A.I. MIS EN PLACE / TOKITAN EZARRI P.A.I-a			

⇒ Je certifie sur l'honneur que les renseignements portés sur ce dossier sont exacts / Ohorearen gainean segurtatzen dut dokumentu huntan eman argibideak zuzenak direla ;

⇒ Je reconnais avoir pris connaissance des conditions d'inscription et du règlement intérieur de la cantine scolaire et m'engage à les respecter/ Aitortzen dut izen emateko baldintzak eta eskoletako barneko araudia irakurtu ditutela eta errespetatuko ditutela ;

⇒ Je m'engage à prendre en charge les frais de cantine de mon (mes) enfant(s) et à signaler tout changement qui pourra intervenir au cours de l'année scolaire (coordonnées téléphoniques, adresse, RIB...)/ Engaiatzen naiz ene hauraren (haurren) bazkarien pagatzerat eta eskolako urtean zehar gertatzen ahalko diren edozoin kanbiamendu seinalatzea(telefonoko zenbaki, helbide,RIB...)

Date / Data :

Signature du parent 1/ Buraso 1-aren sinadura

Signature du parent 2/ Buraso 2-aren sinadura

Précédée de la mention « lu et approuvé »/ « Irakurtu eta onartu » aintzin ezarriz